# ek!

eta kitto!
euskara elkartea

2025eko abenduak 30 · 1379 zenbakia

# 25 AGUR





Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

Fokatu hemen
zure mugikorrarekin
eta iritsi
gure webgunera

·Kataraten eta presbiziaren kirurgian espezialistak.

Plaza Barria, 2. 2º
Telf.: 943 201 844 - EIBAR
www.clinicarecalde.com

# Igmar

## audiozentrua

**1965**az geroztik, Ignacio Martinenak, egungo jabeen aitak sortu zuenetik, **IGMAR** beti aritu da **ikusmenaren eta entzumenaren osasuna zaintzen**, une bakoitzeko azken joerak txertatuz.

Duela 15 urte ingurutik, **IGMAR Audiozentroa** entzumen-sektoreko **marka liderrekin lan** egiten duen entzumen-zentroa da, **audiofonoetan** eta e**ntzumen-laguntzetan azken teknologia** egokituz.

Konektibitatea, erosotasuna edota entzumen kalitatea giro konplexuetan, azken belaunaldiko audifonoek eskaintzen dituzten abantailak dira. Beti, **paziente bakoitzaren jarraibideak** eta **beharrak** betez.

Froga eta doikuntza ezberdinen ondorengo egokitzapen pertsonalizatuak, emaitzarik onena, eta paziente bakoitzaren gogobetetasunik handiena bermatzen ditu.







Audifonoak **mugikorrarekin**, **telebistarekin** edo beste edozein **gailu elektronikorekin konektatzea** da gaur egun azken belaunaldiko audifonoek eskaintzen diguten aukeretako bat, pazienteari ingurunearekiko harremana hobetzen lagunduz.

Entzumena behar bezala **aztertu** eta **kontrolatuz** gero, entzumen-narriadura atzeraezina saihesten da; beraz, entzumen-galeraren bat sentitzen hasten garenean, entzumen-zentro batera joatea gomendatzen da.

**igmar@federopticos.com**

Toribio Etxebarria 23
Tlf. 943201264

Julian Etxeberria 2
Tlf. 943202699

# Jarraitu gaitzazu!

BIDEOAK YouTuben ikusgai




Badoa 2025. urtea, baina hilabete hauek laga dizkiguten irudiak gure YouTube-ko kanalean geratu dira. Bertan, urte osoan landu ditugun bideoez gain, urteari egin diogun errepasoa ikusi dezakezue.

Jarraitu aktualitatea gure webgunean eta sare sozialetan

**www.etakitto.eus**


eta kitto! euskara elkartea

**ARGITARATZAILEA**
...eta kitto! Euskara Elkartea
**HELBIDEA**
Urkizu, 11 · 20600 Eibar
**TELEFONOAK**
943 20 67 76 / 943 20 09 18
**ASTEKARIAREN E-MAILAK**
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus
aldizkaria@etakitto.eus
**ELKARTEAREN E-MAILAK**
elkartea@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus
**ERREDAKZIO-KONTSEILUA**
Ana Aizpurua, Irati Alvarez, Ekhi Belar, Ander Fernandez, Silbia Hernandez, Irune Jaio eta Yanire Sagredo

**ADMINISTRAZIOA**
Marisol Uriarte
**KOORDINATZAILEA**
Ana Aizpurua
**ERREDAKZIO-BURUA**
Silbia Hernandez
**DISEINU ARLOA**
Irune Jaio
**JATORRIZKO DISEINUA**
Maku Oruezabal
**HIZKUNTZA ARDURA**
Maider Aranberri
**PUBLIZITATEA**
Ander Fernandez
**TELEFONOA**
943 20 67 76

**AZALA**
Irune Jaio
**BANAKETA-ARDURA**
Idoia Labado
**TIRADA**
7.800 ale
**INPRIMATEGIA**
GERTU koop. (Oñati)
**COPYRIGHT-A**
...eta kitto!
**LEGE-GORDAILUA**
SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

*("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)*

2024 KUDEAKETA AURRERATUARI DIPLOMA

2015 Bikain

EIBAR Udala | Ayuntamiento

Gipuzkoako Foru Aldundia

# Eskutitzak

### Eibarren bestelako etorkizun batzuk nahI ditugu

Mari Karmenek herri afarian ospatuko du urte amaiera. Leire, berriz, lasai dago etxean neguburuko ospakizuna oroitzen. Mikel bere lehengusinaren etxera doa aurtengo soinekoa Sheinen erosi beharrean berak utziko diolako. Fatimaren alaba poz-pozik dago gaur amaren lagunekin afalduko duelako. Amamak aitxitxa eta bi semeak kroketak egiten utzi ditu, bera bere betiko lagunekin pote batzuk hartzera doan bitartean.
Gure utopia feministetako batzuk dira hauek... Zeintzuk gehituko zenituzke? Eta gure desirak lortzeko antolatzen hasten bagara?
Eibarren bestelako etorkizun batzuk nahi ditugulako.

**Eibarko Eragile Feminista Berria**

# Hortik esanak

Tentsio handia ikusi nuen hizkuntza despolitizatzea nahi zutenekin: nazionalismoari hain lotuta ezin zela agertu, euskara terrorismoaren hizkuntza zela, eta abar. Joera indartsu bat egon zen 90 eta 2000ko hamarkadetan, despolitizatzearen eta profesionalizatzearen alde, eta nolabait orain ikusten ari gara ondorioak. Orain, jende asko eskolaren bidez heltzen da euskarara eta eskolaren edo gobernuaren hizkuntza bezala ulertzen da. Beraz, uste dut konturatzen ari garela jakin behar dugula nola sortu sozio-linguistika-kontzientzia kritikoa. Hori da erronka handia, beste bide batzuetatik, ez talde politikoen bidez, baizik eta eskolen edo talde kulturalen bidez erantzun beharrekoa.

**JACQUELINE URLA, antropologoa**

Ezkerrekoa izanda Gabonetan gozatzea ia bekatu mortala dela kontatu didate aurten. Ados nago neurri handi batean. Kontua da gazteak ginenean ni baino ezkerrerago kokatu zen jende gehienak daukala etxe bat Cadizen edo Errioxan, autokarabana bat, eskiatzera joateko puntako arropa eta diskurtso bat edozer justifikatzen duena. Uste dut argi batzuk jartzea eta urtea amaitu delako xanpain apur bat edatea peccata minuta direla beste gauza batzuen aldean. Ez dut neure burua zurituko, baina Gabonen kontra hitz egiteko eraiki duzuen diskurtso horrek urte guztian balio behar lizueke; eta liguke, jakina. Kontsumismo basatia ez baita abenduaren 24tik urtarrilaren 6ra irauten duen zera bat. Kontsumismo basatia eta jendea zapaldu ezean iraungo ez lukeen sistema hau urte guztian daude hemen, eta egunero pentsatu behar genuke horretan.

**ONINTZA ENBEITA**

### 2026ko lehen alea urtarrilaren 9an

Esku artean duzuen 2025eko Urtekariaren ondoren, barixaku honetan ez da alerik izango zuen buzoietan. Hurrengoa, beraz, normaltasunez heldu-ko zaizue datorren asteko barixakuan, urtarrilaren 9an.
Ondo amaitu urtea eta hobeto hasi hurrengoa!

**Erredakzioa**

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**PIXKAT** → Pixka bat, apur bat. “Ekarrizu mesedez zianuro pixkat”.
**PIXKATIAN** → Denbora tarte laburrean, pixka batian. “Tira ba, pixkatian egon zaittez eta dana gertauko detsut”.
Gaur egunean PIXKAT denerako erabiltzen da, baina PIXKATIAN eta PIXKAT ez dira berdinak: Lehelengoak denbora adierazten du; bigarrenak, berriz, espazioa edo kantitatea. “Zabaldu pixkatian leihua (pare bat minutuan edo)”. “Zabaldu pixkat leihua (zirrikitu bat)”.

# 1961

## Errege Magoen Kabalgata

Meltxor, Gaspar eta Baltasar erregeen kabalgatako irudia da hau. Orduan ere urtarrilaren 5ean egiten zen, eta Lambretta motorrik ez zen falta. Hala ere, badago ezberdintasun aipagarri bat: erregeen laguntzaile guztiak, neskak zein mutilak, euskal jantziekin ageri dira.

**FOTO PLAZAOLA**



## Farmaziak

**MARTITZENA 30**
**EGUNEZ** | Lekunberri (Isasi, 31)

**EGUAZTENA 31**
**EGUNEZ** | Castaño (J. Etxeberria, 7)

**EGUENA 1**
**EGUNEZ** | Elortza (Juan Gisasola, 18)

**BARIXAKUA 2**
**EGUNEZ** | Elortza (Juan Gisasola, 18)

**ZAPATUA 3**
**EGUNEZ** | Mendinueta (Urkizu, 6)

**DOMEKA 4**
**EGUNEZ** | Castaño (J. Etxeberria, 7)

**ASTELEHENA 5**
**EGUNEZ** | Zulueta (San Agustin. 5)

**MARTITZENA 6**
**EGUNEZ** | Castaño (J. Etxeberria, 7)

**EGUAZTENA 7**
**EGUNEZ** | Castaño (J. Etxeberria, 7)

**EGUENA 8**
**EGUNEZ** | Azkue (T. Etxebarria, 4)

**GAUEZ BETI,** 2025ean,
**Lekunberri** (Isasi, 31)
**GAUEZ BETI,** 2026an,
**Elortza** (Juan Gisasola, 18)

## Telefono jakingarriak

| | |
|---|---|
| SOS deiak | 112 |
| Pegora | 010 |
| Udaletxea | 943 70 84 00 |
| Portalea | 943 70 84 39 |
| Udaltzaingoa | 943 70 84 24 |
| Mankomunitatea | 943 70 07 99 |
| Debegesa | 943 82 01 10 |
| KIUB | 943 20 38 43 |
| Kirol Patronatoa | 943 20 32 40 |
| Epaitegia | 943 03 34 00 |
| Iberdrola | 900 17 11 71 |
| Naturgas | 902 12 34 56 |
| DYA Larrialdiak | 943 46 46 22 |
| Gurutze Gorria | 943 22 22 22 |
| Eibar Ospitalea | 943 03 29 00 |
| Mendaro ospitala | 943 03 28 00 |
| Anbulategia | 943 03 25 00 |
| Torrekua | 943 03 26 50 |
| Errepideak | 902 11 20 88 |
| Ertzaintza | 943 53 17 00 |
| Eusko Tren | 944 33 33 33 |
| Lurraldebus | 900 30 03 40 |
| Pesa | 900 12 14 00 |
| Taxiak | 943 20 30 71 / 943 20 13 25 |
| Andretxea | 943 54 39 38 |
| Alkohol. Anon. | 629 14 18 74 |
| Al-Anon / Alateen | 650 26 59 63 |
| Grupo Egun Bat (Jokozale Anonimo eta Familiak) | 699 37 75 20 |

## Hildakoak

- **Malyse Viloin Goulet.** 93 urte. 2025-XII-18.
- **Alejandro Barruetabeña Barruetabeña.** 77 urte. 2025-XII-20.
- **Jose Luis Orbea Oregi "Matxari".** 80 urte. 2025-XII-20.
- **Angelita Alberdi Aldazabal.** 100 urte. 2025-XII-22.
- **Carmen Ormaetxea Barrena.** 65 urte. 2025-XII-22.
- **Angel Arregi Etxeberria.** 92 urte. 2025-XII-22.
- **Ana Maria Elizondo Retolaza.** 86 urte. 2025-XII-24.
- **Jose Luis Valles Molero.** 73 urte. 2025-XII-25.
- **Miguel Angel Mendoza Molina "Tigre".** 80 urte. 2025-XII-26.
- **Maria Blazquez Calles.** 80 urte. 2025-XII-28.



## Kantu artean egin zen Olentzero eta Mari Domingiren kalejira

**S.H.** Aurten ere euripean egin behar izan da Olentzero eta Mari Domingiren kantu-kalejira, Urkizutik Untzagara. Urtero bezala, Udalak antolatutako kalejiran Galtzagorriak eta Musika Eskolako ikasleak egon ziren, Gabon kanta ezagunekin laguntzeko.



## Jaiotza ederra jarri dute San Andres elizan

**S.H.** Eskuz landutako eszenak eta xehetasun ugari dituen muntaiak Gabonetako giro berezia sortu du elizan, eta bisitari askoren arreta piztu du. Sarrera nagusiaren ondoan kokatu dute jaiotza, koruko eskaileren parean, eta 09:00etatik 21:00etara bisitatu daiteke. Jaiotzak paisaia zainduak, pertsonaia ugari eta argiztapen beroa uztartzen ditu, Jaiotzaren eszena nagusia erdigunean jarrita.



## Jose Luis Valles Eibarko Udaleko zinegotzi-ohia hil egin da

**S.H.** Abenduaren 25ean hil zen Jose Luis Valles Molero (1952) politikaria, 73 urterekin. Eibarren, PSE-EEren zinegotzi izan zen, 1991tik 2008ra, eta Debabarreneko eskualdeko komunitateko presidente ere izan zen, 2003tik 2007ra. Horrez gain, 2008ko Espainiako hauteskunde orokorretan, Gipuzkoako senatari hautatu zuten, eta kargu hori bete zuen 2011ra arte. Bere heriotzak ezustean harrapatu ditu lagun eta alderdikideak. Goian bego.

## 6.282 atxikimendurekin itxi da Basalgo eolikoen proiektuaren aurkako herri-alegazio kanpaina

**S.H.** Abenduaren 22an amaitu zen Basalgo parke eolikoari alegazioak aurkezteko epea. Eibarko Mendiak Bizirik plataformak prentsa ohar bidez jakinarazi duenez, guztira 6.282 herri-alegazio bildu dira, Eibar, Soraluze eta Bergarako ekimen herritarretan jasotako atxikimenduak kontuan hartuta. Horrez gain, kaltetutako bost udalerrietako udalek ere alegazioak aurkeztu dituzte. Era berean, Eibarko Mendiak Bizirik plataformak 30 alegazio tekniko ere aurkeztu ditu.

RAFAEL LAPEYRA, S.L.

LAMINAZIOZ EGINIKO ZEHAZTASUN HAUNDIKO HARIAK
BULOI ETA TORLOJUAK
HUSILO ETA AZKOINAK

Urte berri on!



Erisono Industrialdea, 3 – 20600 – EIBAR
Tfnoa. 943 121 308 - 943 121 312
www.rlapeyra.com

Eibarko **PROFESIO LIBERALAK**

| ABOKATUAK | AHOLKULARIAK | BITARTEKARITZA |
| --- | --- | --- |
| **CRISTINA BAZ LARRAÑAGA**<br>Fermin Calbeton 4, 3 esk.<br>Tel. 943 12 80 55<br>www.cristinabaz.com<br>cristinabaz@icagi.net | **GAURVE**<br>Fermin Calbeton 13-15<br>Tel. 943 20 24 61<br>www.gaurve.com<br>consultores@gaurve.es | **CRISTINA BAZ LARRAÑAGA**<br>Fermin Calbeton 4, 3 esk.<br>Tel. 943 12 80 55<br>www.cristinabaz.com<br>cristinabaz@icagi.net |
| **MARTA VALERA ECHALUCE**<br>Fermin Calbeton 4, 3 D lokala<br>Tel. 659 38 33 19 - 943 20 05 70<br>abogada@martavalera.es | **GESTILAN**<br>Zezenbide 4<br>Tel. 943 20 70 02<br>www.gestilan.es<br>gestilan@gestilan.es | |

**Hemen zure lekua**
**Informazioa: 943 20 09 18 ( ...eta kitto!)**



# Udalbatzak 62,1 milioi euroko aurrekontuak onartu ditu 2026rako

**S.H.** PSE-EE eta EAJ-PNVk osaturiko Udal Gobernu Taldeak 2026ko aurrekontua onartu zuen abenduaren 18an egindako osoko bilkuran. Eibarko EH Bildu udal taldeak eta Elkarrekin Podemos Eibarrek ez dute aurrekontua babestu. Azaldu dutenez, datorren urteko aurrekontuak aurtengoak baino sei milioi euro gehiago izango ditu. Guztira 62.105.774 euro, zehazki. Igoera horrek bi ardatz nagusiri erantzuten die: benetako inbertsioaren indartzeari eta zerbitzu publikoen eta udal-langileen kontsolidazioari. Jon Iraola alkatearen berbetan, "aurrekontu hauek lan-ildo koherente baten emaitza dira. Onartutako dokumentuak gizarte-kontuei arreta berezia jartzen die, oinarrizko zerbitzuak indartzen ditu eta baliabideak modu arduratsuan planifikatzen ditu. Ez da igoera artifizial bat, kontzienteki egindako apustu bat baizik, inbertsio estrategikoei aurrea hartzeko eta Udalari herritarren benetako premiei erantzuteko beharrezkoa den gaitasuna emateko".



## "Txopitea eta Pakea"saria jaso du Felix Elkoroiribek

**S.H.** Abenduaren 20an udaletxeko pleno aretoan egindako ekitaldian jaso zuen *Txopitea eta Pakea* saria Felix Elkoroiribe eibartarrak, "bizitza osoan izandako konpromiso sozialagatik". Eibarko Udalak egin dezakeen aitortzarik handiena da *Txopitea eta Pakea*, Jorge Oteizaren eskultura enblematikoaren erreplika eta, sari hori emanda, Elkoroiriberen ibilbide pertsonal eta profesionala aitortu nahi izan ditu Udalak, "baita Eibarrekiko eta bertako herritarrekiko izan duen konpromiso iraunkorra ere", eta bereziki nabarmendu dute Untzaga Zentro Sozialean egindako lana.









Idurre Iriondo

# 2024

urtea **1.556** langabeturekin amaitu genuen Eibarren



**BLANCA TULLEUDA**

*Aktibista indarkeria matxistaren kontrako mugimenduan*

**"Tratu txarrak ematen dituena ezin da aita ona izan"**

Bi sute piztu ziren herriko bi toki ezberdinetan, Errekatxu Berrin eta Amañan, ordu gutxiko tartearekin.



Errekatxuko sutea.

**MIKEL LIZARRALDE**

*ZAZPI dokumentalaren egilea*

**"Ideiak ordenatzeak eta norbere bizipenei hitzak jartzeak asko laguntzen du"**



Ia 100 lagun batu zituen Auzokoak elkartearen Errege osteko bazkariak.

Ipurua eta Unbeko kirolguneetako atezainek greba hasi zuten, eta baita hezkuntza publikoko langileek ere.

Ia 100 lagun batu zituen Auzokoak elkartearen Errege osteko bazkariak.



Haurreskoletako mobilizazio bat.

Javier Ziaran jubilatu ondoren, Julen Saldias bihurtu zen Eibarko Udaltzainburu berria.

Udalbatzak **55.798.189,99€-ko** aurrekontua onartu zuen 2025erako.

**THE VARTOOLS**
*Musika taldea*

**“Taldeko kideen arteko harremana da The Vartoolsek duen gauzarik onena”**





80 urte baino gehiago desagertuta egon ondoren, Eibarrek Alcala Zamora presidenteari oparitutako pistola berreskuratu zuten.



Jaixak Herrixak Herrixandako plataformak prozesu parte-hartzailea burutu zuen, barne-hausnarketa egin eta biziberrituta irteteko.



**JORDINA ARNAU**
*Kazetaria eta komunikatzailea*

**“Eskuin muturra kapitalismoa salbatu nahi duen teknologia politikoa da”**

**52.183** ikusle hartu zituen iaz Coliseo antzokiak






**2015**ean ehorzketen eta nitxoen erabilera **% 12**koa zen, gaur egun **%11**koa

## ALBERTO SAN EMETERIO

*Ipuin kontalaria*

**"Bidean galdu ditudan lagunen omenez idatzi dut 'La íltma copa' eleberria"**




## OLATZ SALVADOR

*Musikaria*

**"Esperimentatzeko nahi batetik jarraitu ditut beste batzuetan hartu ez ditudan bide berriak"**






END herri plataforma sortu zuten etxegabetasunaren arazoari aurre egiteko. Besteak beste, aterpetxea berriz zabaltzea zuten helburu.

Antzerki Jardunaldien 48. edizioa egin zen otsailaren 25etik apirilaren 11ra arte. Ehun aktore inguruk hartu zuten parte 20 lanetik gorako ekitaldian.

San Blas opilez gozatzeaz gain, Santa Agedaren omenezko kopla eta doinuek bete zituzten kaleak otsailaren hasieran.

Joseba Etxeberriari entrenatzaile lana amaitu zitzaion eta Beñat San Josek hartu zuen bere lekua SD Eibar-en aulkian.

## NAIARA SARASKETA

*Diseinatzaile grafikoa*

**"Arkatzak paperaren gainean kras-kras egiten duenean sentitzen duzun hori beste kontu bat da"**



## SILVIA CARRIZO
*Abokatua eta kazetaria*

**“Dependentziaren laguntza publikoek atzerriko langileen esplotazioa finantzatzen dute”**



## YOLANDA ARRIETA
*Idazlea:*

**“Sortzaile izatearen egoera ez da aldatu; prekario izaten jarraitzen dugu”**



Euriari eta hotzari aurre eginez, 400 lagun elkartu ziren Untzagan Eibarko Klub Deportiboaren logoa argiekin irudikatzeko.



**410**
proiektu inguru aurkeztu zituzten mila ikasle inguru elkartu ziren 14. Ikasenpresa Azokan.

UniEncounter informatikaren eta teknologia berrien topagunearen 20. edizioa egin zen Hezkuntza Esparruan.



## MARISABEL ALBIZU

**“Trumpek zirkoa egiten du, baina neurriak benetakoak dira, batzuentzat hil ala bizikoak”**



Koko-eskearekin eta koko-dantzekin hasiera eman ondoren, hilaren amaieran ospatu ziren aratosteak.

## MIREN ARANGUREN ETXARTE

*Soziologoa*

**“Zaintzaren ikuspegi integral batetik ekingo dion arkitektura erakundetu bat aldarrikatzen dugu”**



**14** espezie autoktonotako **350** zuhaitz eta zuhaixka landatu zituzten Pagaegikortako lursailean.

Edukiontzi marroia zabaltzeko txartel elektronikoa (edo app bitartez) erabiltzera behartu zituzten herritarrak.




Martxoaren 8a zapatuan egokitu zela aprobetxatuz, Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzeko ekitaldiz beteta egon zen eguna.

## MIKEL KAYE

*Aktorea*

**“Demaseko aukera izan da niretzat, ‘Miñan’-en antzeko egoerak oso gertutik bizi izan ditut-eta”**



45 eguneko greba eta gero, Udal kirolguneetako atezainek akordioa lortu zuten. Merkal Calzadoseko langileek akordioa sinatu zuten, baina eurak urtebete egon ziren greban.

Kriminalitatearen hazkundeari aurre egiteko neurriak hartuko zituela iragarri zuen Udalak. Delitu gehienetan beherakada egon den arren, lapurreta txikietan eta indarra erabiliz egindako lapurretetan demaseko hazkundea egon zela onartu zuen alkateak.




## ROSA GONZALEZ ETA IONE MARTINEZ

*Txernobylgo haurren harrera-familiak*

**"30 urteko harreman estua egin dugu Yura eta Sasharekin, guretzat familia dira”**



## JON ALONSO

*Abeslaria*

**“Musikaz gain, beti eduki dut antzerki grina piztuta”**



Punta-puntako robota instalatu zuten Mendaroko Ospitaleko urologia-zerbitzuan, lehenengoa eskualde-ospitale batean.



Arrazakeriaren Aurkako Egunarekin batera, Urkizuko dorreetan dagoen Al Fitrah elkarteak ateak zabaldu zituen.

Greziako errefuxiatuei jaten emateko

**12.000 kilo**

bildu zituzten Zaporeak erronkan.



## DAVID SUAREZ DE LA PEÑA ‘TXELI’,

*Clowna*

**"Uste dut denok daramagula barnean ergel bat edo komikotasun moduko bat”**



## NAGORE OTAZUA

*Sexologoa*

**“Garrantzitsua da gazteek zalantzak argitzea euren sexualitatea modu erosoan bizi ahal izateko”**



Eguraldi kaskarra egin zuen Basoak Bizirik-en landaketan.

# Udalbatzak **427.077€-ko** dirulaguntza-lerro berria lortu zuen nazioarteko lankidetzarako.



## UNAI ALTUNA
*Sukaldaria*

**“Debabarrenean era askotako planak egiteko aukera dugu, baita oso ondo jateko ere!”**

Apirilaren 14an, Espainiako II. Errepublikaren aldarriaren 94. urteurrenean hasi zen ofizialki Untzaga plaza Memoria Demokratikoaren Leku izendatzeko prozesua.



Gazte Safa elkartekoak ere kalera irteten dira barixakuetan, hamabost egunean behin, jakiak eta tea eskainiz, herritarrengana gerturatzeko.

## KARMELE JAIO
*Idazlea*

**“Emakumearen estatusa maitatua izatearen arabera neurtzen da hein handi batean”**



Palestinaren aldeko manifestazioak, Arrateko bidea ikurriñez beteta, Eurocen enpresako langileak lan-baldintza hobeak eskatzen, pentsionisten manifestazio jendetsua... Eibartarrek kaleak hartu zituzten apirilean.



Palestinaren aldeko mobilizazio bat.

## 272.855€-ko
aurrekontua ezarri zuten zezen-plazatik Sostoatarrenera doazen eskailerak aldatzeko.

### JULIAN ETA MARTIN EZENARRO
*Irukurutzeta fundazioa*

**"Fundazioak egiten duen lanari esker, mendia garbi dago"**



Apirilaren 2a Autismoaz Kontzientziatzeko Munduko Eguna izan zen eta, hori aprobetxatuz, Gautenak eta autismoaren espektroko nahasmendua duten umeen gurasoek autismoaren inguruko mitoak hausteko solasaldia eskaini zuten.



Gautena Fundazioko kideak.



Apirilaren 29an Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatu zen eta herriko dantza taldeak kalera irten ziren ikuskizunak eskaintzera.



### HELENE OTADUY
*Euskaraldiko hamaikakoa*

**"Euskaraldia garrantzitsua iruditzen zait euskarari espazio zabala ematen dion ekimena delako"**

Gure herriko **25 dendak** hartu zuten parte 'Eibar Modan' desfilean.

ZURICH
Lejardi S.L. Aseguru Agentzia
Tel. 943 20 11 49 / Plaza Barria, 8 / Eibar

## JONE BENGOA

*Ilustratzailea eta umoregilea*

**“Umoretik aritzea errazagoa eta dibertigarriagoa da”**



## Pentsiodunek 140.000 sinadura baino gehiago aurkeztu zituzten Legebiltzarrean.

Maiatzean argazkilaritza izan zen protagonista Eibarren. Goi-mailako argazkilarien lanak, erakusketak eta tailerrak egin ziren Argazkilaritza Maiatzean ekimenaren barruan.



Maiatzaren 15ean Euskaraldia hasi zen eta, ariketa soziala egiteaz gain, hainbat ekintza egin ziren herrian.

## AMAIA ALVAREZ URIA eta JUNE FERNANDEZ CASETE

*Idazle eta kazetariak*

**“Gazte militante gehienek nahiago dute bollera berba erabili, kutsu borrokalaria ikusten diotelako”**



Egoaizia elkarteak 25 urte bete zituela eta, hainbat ekintza egin zituzten urteurren berezia ospatzeko.

Animalien Babeserako Euskal Federazioak (Euskanbafed) deituta, zezenketen kontrako protesta egin zuten Untzagan.

“Non daude gizonezkoak?”, galdera horrekin eman zioten amaiera Esperientzia Eskolaren ikasturteari, gizonezko batek ere ez baitzuen izenik eman.



Jaien sasoiari hasiera eman zitzaion Santa Kurutzeko jaiekin.

## PALMIRA DUAL JIMENEZ

*Kera emakume ijitoen elkartea*

**“600 urte daramatzagu Euskal Herrian eta gure giza eskubideak ez daude babestuta”**





Euskal Herriko Islamiar Federakundeak Eibarren egin zuen 4. kongresua, hausnarketarako bideak zabalduz.



Aurten Euskal Jaiarekin egin du bat Tantanez Tantan ekimenak. Euskararen olatua tsunami bihurtu zen Urkizutik Untzagaraino.

## Eibarrek eraldaketa-prozesu bati ekin zion LJE funtsen **12 milioi euro** baino gehiagorekin

## URKIKO JAI BATZORDEA



**“Hasiera batean Urkiko jaiak otarrainxkengatik eta brasildar dantzariengatik ezagunak baziren, orain paella lehiaketa da gauzarik ezagunena”**

Maiatza kolpe latz batekin hasi genuen: Dioni Kortina hil zen, orain arteko pisu gehieneko harria jaso duen Eibarko gizasemea. Eta 22an beste kirolari handi bat joan zitzaigun: Pedro Agirregomezkorta ‘Petrus’.

GAUR ELEKTRIZITATEA
INSTALAZIO ETA ETXE-ERREFORMA ELEKTRIKO INTEGRALAK. ILUMINAZIOA
ATEZAIN AUTOMATIKOAK ETA BIDEO-ATEZAINAK
Zuloagatarren, 9 Tel. 943 20 62 40
nagore@egaur.com

X XABALO 2024
F. Calbeton, 12 943096884
OKINDEGIA / GOZOTEGIA
TXUTXE-DENDA
JANARIDENDA TXIKIA
Urte Berri On!

125 urteko ibilbidearen ondoren, Jeronimo jostailu-dendak ateak itxi zituen.








Udari hasiera eman genion eta kanpoko igerilekuak zabaldu zituzten, tabernari berriekin.

## MAIDER OTAOLA LOPEZ eta AINHOA UGARTE ZULOAGA

*Nakama proiektua*

**“Asko gustatzen zaigu laguntasuna transmititzea eta nola bidaiatzen dugun ikustea”**



## 600

parte-hartzailetik gora izan zituen Sanjuanetako

4. futbol-txapelketak

## ENRIQUE MONTERO

*Txistularia eta irakaslea*

**“Eibarren sei edo zazpi txistulari banda egon ziren aldi berean”**



## KOKEIN,

*San Juan jaietako omenduak*



**“Beti gaude elkarrengandik hurbil, horrek egin gaitu familia eta lagun”**



Ekainean San Juan jaiak izan ohi dira protagonista, horren inguruan antolatzen diren ekintzek hartzen dutelako hilabetea. Aurten ere, irudi gogoangarriak laga zizkiguten herriko jaiek.





## IKER GALARTZA

*Gure Zirkua*

**“Gure Zirkuaren karpan sartzerakoan mundu magiko batean murgiltzen zara”**



**521**

lagunek hartu zuten parte

**24. Eibarko**

Itzulian

Errebal Eraikina Aldi Baterako Enpresa-Elkarteak (ABEE) Udalari **106.496** **euro** ordaindu beharko dizkiola ebatzi zuen epaitegiak



**MAITANE ORMAZABAL**
*Psikologoa*

**“Mugikorretako sare sozialen app-ek euren zerbitzura nahi gaituzte”**



**FELIPE GISASOLA**
*Teknimap-eko zuzendaria*

**“Teknimap-ek landutako proiektuak EAEko lurzoru kutsatuen tratamenduari erantzun nahi dio”**



Maiatzean ateak itxi eta Eibar liburu-denda barik laga ondoren, Yraolagoitiak berriz zabaldu zituen ateak Biktor Molineroren eskutik.

Errekatxun bide berria zabaldu zutenez, inguruko trafikoaren norabidea aldatu egin zen.



# Debabarreneko **27 gazte** aritu ziren **2024-25** ikasturteko begirale ikastaroan

## OSKAR GISASOLA eta JON GALARRAGA

*Gipuzkoako Orientazio Taldea*

**“Orientazio probetan oreka bilatu behar da desnibelaren eta distantzien artean”**



## AIERT ZUBIGARAI

*‘3izkai’*



**"Komiki bakoitzak 16 bat hilabete eskatzen dizkit: ikerketa dela, finantzazioa, gidoia eta marrazkiak, marketina..."**

Amaña auzoan jaiak eztanda egin zuen, baina Modus Operandi eta Lendakaris Muertos taldeen kontzertuak bertan behera laga behar izan zituzten ekaitzaren ondorioz.

Udako oporratatik bueltan, bi heriotzaren berri eman genuen: Jose Luis Perez Sarasketa Usartza Txistulari Bandaren eta Kezka eta Amalur Klub Deportiboko Dantza Taldeen sortzaileetako bat; eta Jose Ignacio Rekalde Yurrita oftalmologo ezaguna.

## IÑAKI ORTIZ DE VILLALBA

*Modus Operandi*

**“Gertatzen ari zaiguna da iparraldean ari garela jotzen Hegoaldean baino gehiago”**



## ROSE AGUIRRE

*Komunikatzailea*

**“Matxismoak beldurrez bizitzera kondenatzen gaitu eta klase sozialaren arabera larriagotu daiteke”**



Xabier Oruesagastik bultzatuta, munduko saxofoi-jole onenak jaso zituen herriak Eibarsax nazioarteko saxofoi jaialdian.

## Abenduak 31 / eguaztena / 12:00 / Coliseo Antzokia

# XXX. Eibarko Kirol Sariak

Abenduaren 31n, eguaztena, ...eta kitto! astekariak antolatzen duen Eibarko Kirol Sarien 30. edizioak hitzordua izango du Eibarko kirol munduarekin.
Coliseon, eguerdiko 12:00etan hasiko den ekitaldian, kirol-modalitate bakoitzean izendatutako kirolariek euren saria jasoko dute; aurten 32 banatuko dira guztira. Eibartarroi ekitaldira joateko gonbitea egiteaz gain, parte hartu duten kirol talde guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu.
Zorionak irabazleei! Eta baita gure herriko kirol-taldeei ere, urte guztian egiten duten lanarengatik.
Ekitaldira joaterik ez duzuenok ere streaming bidez jarraitu ahal izango duzue ...eta kitto!-ren YouTubeko kanalean.


Mikel Lizarralde
**SARI BEREZIA**


Arrate Gutierrez
**PUBLIKOAREN SARIA**


Alex Higuera
**EUSKARA SARIA**


Ugaitz Gartzia
**ATLETISMOA**


Lorena Camiño Aranceta
**BILLAR**


Pablo Jimenez Guilabert
**ERRUGBIA**


Eneritz Gonzalez Alberdi
**ESKUBALOIA**


Marta Lopez de Gereñu
**FUTBOLA**


Ane San Martin
**GIMNASIA**


Dioni Kortina
**HERRI-KIROLAK**


Ganix Rodriguez
**HIRU-TXIRLO**


Paula Calvo
**IGERIKETA**


Nora Melo
**IGERIKETA ARTISTIKOA**


Maren Cortazar Romero
**LERRO HOCKEY-A**


Eneko Korta /Federico Cuenca **JUDOA**


Achraf Bensliman/ Amina Gourmet **JIU-JITSU**


Naiala Rodriguez Perez
**JUGGER**


Hodei Saez Arias
**KARATE**


Sandra Rocha
**KICK BOXING**


Jon Aristi Narbaiza
**MENDIA**


Aratz Amillategi
**PILOTA**


Ane Feijoo
**SASKIBALOIA**


Unax Lobo
**SKATE**



Ekhi Azpilikueta
**SURF**


Iñigo Ciarsolo
**TENISA**


Francisco Romero
**TIRO OLINPIKOA**


Idoia Uruñuela
**TRIATLOIA**


Julian Eraso
**TXIRRINDULARITZA**


Gorka Arregi / Xabi Varela
**WATERPOLOA**


Jon Leal Gallastegi
**WU-SHU**


Mikel Saenz Gil
**XAKEA**

garajes García.com

Garajes Garcia
**SUSTAPEN SARIA**

## JUANKAR OLAETA ALVAREZ

*Aldatze ikastetxeko zuzendaria*



**“Garapenerako proiektuak daude, baina ez ikuspuntu material batetik bakarrik, baita gizarte aldetik ere”**

## Deporreko eta Morkaikoko **21 mendizale** Pirinioetan ibili ziren udan

Pello Osoro eta Patri Amundarain izan ziren irabazle Simon Aldazabal lasterketan.




Pentsiodunen ikasturte berria mobilizazioz gainezka hasi zen.

## EVA ALBERDI

*Eibarko Juan San Martin Udal Liburutegiko arduraduna*

**“Askoren ustearen kontra, udal liburutegia ez da ikasteko toki bat bakarrik”**



Dentsitometroa ipini zuten Eibar Ospitalean hezurretako gaitzak hobeto sendatzeko. Urtero Debabarrena ESIko 1.000 lagun inguruk horrelako proba behar izaten dutela azaldu zuten.

Udako oporretatik bueltan, Arrateko Jaiekin hasi genuen ikasturte berria. Eguraldiak ez zuen lagundu, baina eibartarrok ez genuen hutsik egin Arrate Egunean.

## EDURNE SAN MARTIN eta ASIER IBAIBARRIAGA

*Txillarreko sukaldaria’ liburua eta ikus-entzunezkoa*

**“Pellok bere txikitasunetik eskaini zuen baserria eta oso emankorra izan den proiektua hasi zuen”**



## PELLO BERRIZBEITIA

*Korrikalaria*

**“Ez zitzaidan burutik ere pasatuko inoiz Munduko Txapelketa batean parte-hartuko nuenik”**





Herriko ikastetxeetako gurasoen elkarteek bultzatuta eta Athlon kooperatibarekin elkarlanean, Eskola Kirolari aurpegia aldatu zioten ikasturte berrirako.



Aurten, ...eta kitto! Jaia irailaren azken zapatuan ospatu genuen. Milaka lagun elkartu ziren Untzagan gurekin euskara erdigunera eraman eta elkarrekin musikaz zein sagardoaz gozatzeko.

Udalak jakinarazi zuenez, bi haurreskola berri jarriko dira martxan Eibarren, **0-2** urteko haurrentzat **41 plaza** gehiago eskaintzeko.

## MIKEL GOROSABEL

*EH Sukarra*

**“Uste dut musika originala Euskal Herrian oso bizirik dagoela”**



Patxi Eguiguren gazte eibartarrak ‘Asteroideiak’ aurkeztu zigun, zientzia-dibulgazioa euskaraz egiten duen proiektua.

EUSKO LABEL
Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada
Bidebarrieta, 20
Espezialistak plater prestatu eta haragi bikainetar
ETXERA ERAMATEN DIZUGU
943 20 16 69
OBERENA HARATEGIA

# 55

lagun inguruk hartu zuten parte Udazkentrailean





## IÑIGO ARIZAGA

*Eibarko Klub Deportiboko Espeleologia taldeko kidea*

**Udaletxearen arkupearen azpian harrizko arku biki bat dago”**

Burbuila moduko bat atzeman zuten San Juan kalera ematen duen anbulatorioko fatxadan eta, erortzeko arriskua saihesteko, botatzea erabaki zuten.

## MARINA PEROSANZ

*Zinemagilea eta Zinemaldiko langilea*

**“Nire ametsa noizbait Zinemaldian pelikula bat aurkeztea da”**





Altxa Burua mugimenduak I. Topaketa Orokorra egin zuen. ‘Zer leku izan behar du pantailak haurtzaroan?’ galderari erantzun nahi zioten, besteak beste.

Herriko haurreskola publiko guztietako plazak beteta geratu ziren eta hainbat ume bertan sartu ezinik gelditu ziren. Beraz, gurasoek protesta egin zuten.

Oskar Gaskonek irabazi zuen Indalecio Ojanguren lehiaketako ohorezko saria.




Genozidioak etenik ez zuenez, eibartarrek babesa erakutsi zioten, beste behin, palestinar herriari.



Basalgo parke eolikoaren proiektuak kezka piztu zuen Debabarrenean eta eibartarrak mobilizatzen hasi ziren.

## YOUSEF ALHELOU

*Palestinako kazetaria eta zinegilea*

**Gaza berreraiki eta, egunen batean, Palestinako estatu independentea izango dugu”**



Kanpoko igerilekuak ixten zituztela aprobetxatuz, Marcan Huella elkarteak ‘Txakurrak Uretara’ jarduera antolatu zuen.

## ALAITZ MELGAR

*Idazlea*

**“Irakurle askori piztu zaie euren familiaren iraganari buruz gehiago jakiteko gogoa”**




Unzaga Plaza hotelak ateak itxi zituen. Aurretik, ostera, hotelaren ardura zuten Unai Otxandiano eta Leire Uribetxeberria senar-emazteek Azitaingo Hotel Eibar zabaldu zuten.

## JOKIN AZPIAZU CARBALLO

*Soziologoa*

**“Herritar autoantolatuek ez dute nahi dutena lortzen parean munstro handiak aurkitzen dituztelako”**



## MIREN CID

*Matraka Gazte Feministen taldea*

**“Feminismoa da gure lubakia, olatu faxistari aurre egiteko arnasgunea”**



**2026**rako udal-tasak eta zergak **%2,5 igotzea** onartu zuen Udalbatzak.

## ENEKO RAMON

*Eduki sortzailea*

**“Euskaraz egitea erabaki politikoa da: sareetan gazteengana iritsi behar dugu”**



## 150 ume inguruk hartu zuen parte Asier Cuevas Lasterketa Txikian.

Ipuruako merkatuko plazoleta “suntsitzen” duen proiektua geldiarazteko eskaera egin zuen Ipurua Merkatu Plaza elkarteak.



Eibarko lau taberna (Ongietorri, Kontent, Amesti eta Albert) lehian ibili ziren ETB-ko ‘Pintxo-pote’ telebista saioan.

## IKER LASUEN eta AITZIBER URKIOLA

*Korrikalariak*

**“Ondo, erdipurdi ala gaizki joan zaitezke, baina Boulevardean indar guztia ateratzen zaizu”**



Oxygen proiektuak irabazi zuen aurtengo On Ekin sari nagusia. Oxygen azken belaunaldiko gimnasioa eta estetika ekologiko eta beganoko kabina konbinatzen dituen ongizate-zentro integrala da.

Azaroaren bigarren astelehenean Gazteinerre ospatu genuen, batzuek etxean, beste batzuek lagunartean, eta AEK euskaltegikoek kantu-kalejiran eta Deporren afaltzen.





San Andres jaiak direla aprobetxatuz, ekitaldi gastronomikoak izaten dira protagonista azaroan zehar: pintxo lehiaketa, bakailao txapelketak, Txistorra Eguna... Goserik ez genuen pasa!

## OLATZ ETA ENERITZ ALBERDI eta ANDER URKIA

*Baserritarrak*

**“San Andres azokan, jende nagusiak ohitura du lehenengo erosteko, eta gero buelta bat emateko”**



CD Urki eta SD Eibar-en nesken taldeek elkarren aurka lehen aldiz jokatu zuten.

## XABIER BADIOLA

*Musikaria*

**“Gitarra-jolea naiz lehenik eta, gero, abestu egiten dut”**



Azaroaren 25a zela eta, hainbat ekintza antolatu zituzten sentsibilizazioa, erreparazioa eta parte-hartze komunitarioa bultzatzeko.



Fernando Errekalde mendizaleak Ama Dablameko gailurra (6.812 m) iritsi zuen. Espedizioan berarekin zihoan Unai Erasok gertu izan zuen tontorra.



Ustekabe txarangak 25 urte bete ditu eta urte hauetan taldean ibili direnak elkartu ziren ospakizunei hasiera emateko.

**22 modelok** desfilatu zuten Untzaga gizarte zentroan egin zen belaunaldien arteko moda desfilean



## ARITZ LARRAÑAGA

*Eibarko Mendiak Bizirik*

**“Herriak eta naturak ez dute lekurik Basalgoko proiektuan”**

**285** erakusmahai (tartean bi eibartar)
**1.026** nobedade
**273** kultur ekitaldi
egon ziren Durangoko Azokan

Felix Elkoroiribek ‘Txopitea eta Pakea’ jaso zuen abenduaren 20an, bizitza osoan izandako konpromiso sozialagatik.





Abenduaren 3an 'Emaiozu berbia euskeriari!' lelopean ospatu genuen Euskararen Eguna.

Usartza Txistulari Taldeak Gabonetako Kontzertuarekin eman zion amaiera urte bereziari. Izan ere, 90 urte bete dira herrian lehen txistulari taldea sortu zenetik.

Eibarko Asanblada Antifaxista sortu zuten Eibarren eta abenduaren 20an Faxismoaren Aurkako Eguna egin zuten jarrera erreakzionarioei aurre egiteko.

## BEÑAT LASKURAIN eta UNAI CORDOBA

*Eibarko Gure Esku Dago plataformako kideak*

**“Gure Esku Dago herri ekimen bat da, herri plataforma bat, pentsaera anitzeko jendea helburu komun baten inguruan biltzen duena”**



## SOFIA MACHIN
*Artista*

**“Coliseoko kontzertua ez da orain arte egin dudana izango, zerbait handiagoa baizik”**





Abendua hasi aurretik piztu zituzten Gabonetako argiak eta horren inguruko ekintzek hartu dute hilabete osoa.



Santa Kurutz ermitako kanpaia lapurtu zuten, Arrateko bailaran. Mendizale bat ohartu da haren faltaz. Antzeko lapurreta gertatu zen azaroaren hasieran San Salbador ermitan.

Itsaspeko Zinemaren Nazioarteko Zikloaren **24. edizioa** egin zen Eibarren.

## IKER ARANBARRI SARASUA
*Idazlea*

**“Zaintzen nauen eta on egiten didan generoa da poesia”**



Deporreko atletak izan ziren nagusi Arraten jokatu zen Bolunburu Oroigarrian: Julen Teranek irabazi zuen lasterketa nagusia.

BOLINTXO
OKINDEGIA
GOZOTEGIA
Eguneroko ogia
☎ 943 20 40 66 (Errebal)

ek!
Zure publizitatea herriko aldizkarian
688 621 535
publizitatea@etakitto.eus

URTARRILA / OTSAILA

**Datozen orriotan ...eta kitto! Euskara Elkarteak amaitzear dagoen 2025ean egin dituen jarduerak bildu ditugu, urtarriletik hasita abendura arte, hilez hil. Eibartarron egunerokotasunean presente egon nahi izan dugu, euskaraz jarduteko aukerak eta espazioak emanez eta euskarari arnasguneak eskainiz. Euskaldunei zein euskarara hurbildu nahi dutenei topalekua eskaini diegu gurean, eta herriko eragile sozialekin egiten dihardugun elkarlanak ez du etenik izan. Guztion artean Eibar euskaldunagoa egingo dugu.**



Euskeraz primeran! ekimena neguko merkealdien azokan




Imanol Ituiño magoaren ikuskizuna Coliseon



Barixakuak Jolasian ekimenak euskarazko aisialdia eskainitzen du



Gurasoak Berbetan eta Ongoietorriko familiak pizza-tailerrean



Ongietorriko familiek sanblas opilak egiten ikasi zuten



Harixa Emoten saioan Yolanda Arrieta idazlea



Euskararen sozializazioari eta transmisioari buruzko XV. Mintegia



Jon Alonso aratosteetako pregoilari



Gurasoak Berbetan eta Ongietorriko familiak Alluitz Naturan



Beatriz Egizabalen “Gregoria” ikuskizuna M8-aren barruan



Aratosteetako Playback lehiaketa



Elkartearen Urteko Batzar Nagusia



Aitziber Badiolaren “Kolorimetria” saioa (Illunabarrian)



Berbalagunak Elorrion

MARTXOA / APIRILA

MAIATZA/ EKAINA



Familia arteko "Altxorraren bila" ekintza



Ipurterre Ipuin Lehiaketako irabazleak



Tantanez Tantan euskararen olatua Eibarrera ailegatu zen Eibarko euskalgintzaren eskutik



Harixa Emoten saioan Miren Agur Meabe idazlea




Euskeraz primeran!-eko ahozapiak eta azukreak banatu genituen herriko tabernetan



Kiki, Moko eta Koko pailazoen ikuskizuna



Ongietorriko familiek Zumaiako Flyscha bisitatu zuten

UZTAILA/ URRIA



Arrateko Bertso Afaria




Arrateko Kittonbolia




Irudi berrituta ekin zion ikasturteari Txikitto! hilabetekariak



...eta kitto! Jaixa




Euskeraz primeran! udako merkealdien azokan



Berbetan jaialdia



Harixa Emoten saioan Alaitz Melgar idazlea



Berbalagunak El Pobaleko burdinolan

AZAROA / ABENDUA


Gurasoak Berbetan eta Ongietorriko familientzat diru-zorro tailerra


Ongietorriko kideak xaboi ikastaroan


Txapa-tailerra (Illunabarrian)



San Andres Bertso Jaialdia Coliseon


Euskeraz primeran!-ek euskarazko esaldiak banatu zituen herriko tabernetan Gabonei begira


Abenduaren 3an Euskararen Eguna ospatu genuen


Txikitto! hilabetekariaren urteko azkeneko alea


Kandela tailerra (Illunabarrian)


ESTREINA EZAZU IRRIBARREA!
PROMOZIO BERRIA TITANIOZKO INPLANTEETAN
URTARRILAREN 31-RA ARTE
ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!
aldaz
hortz klinikak · clínicas dentales
ELGOIBAR · LASARTE-ORIA ·TOLOSA
943 36 63 77
RPS: 128/24


LA SALVE
TOPA-LEKU
taberna
URTE BERRI ON!
RPS: 128/24



# Euriari eta hotzari egin zieten aurre 60 lagunek Gabontrailean

**E.B.** Abenduaren 24an, 60 mendizale inguru elkartu ziren 11. Gabontraila egiteko eguraldiak lagundu ez bazuen ere (giro lanbrotsua eta hotza egon zen) eta ibilbidea lokaztuta egon arren.

Parte-hartzaileek ohiko ibilbidea egin zuten, 16 km eta 754 metroko igoera metatuarekin. Klub Deportiboko egoitza paretik abiatu ziren, Estaziño kaletik bariantera jo zuten, bariante azpitik Santa Kurutzera, gero Usartzara, Akondia baserritik Krabeliñeko lepora (Txabola Pagola aurretik), ondoren Kalamuako lepoan "lanbro artean" argazkia egin zuten ("tontorrean ez zelako giro", euren berbetan), Kalamua tontorrera igo ziren eta zuzenean Parlamentura jaitsi ziren kabaz eta turroiaz gozatzera. Topa egin ondoren, Usartzara joan ziren ohiko bidetik, eta ibilbidea nahiko irristakorra zegoenez, Santa Kurutzeko eskolako sarreran Matxariko baserriaren bidetik jaistea erabaki zuten Depor parean amaitzeko. Eguraldiak lagundu ez arren, antolatzaileek gustora amaitu zuten, eta sortu zen lagun giroa goraipatu zuten.

## Kalamuakoek gerriko beltz eta dan gehiago lortu dituzte

Abenduaren 20an, Gerriko Beltza eta Judo Danetarako Graduko azterketak egin ziren Euskadiko Judo eta Kirol Elkartuen Federazioak antolatuta, eta Kalamua Judo Klubeko zenbait ordezkari egon ziren bertan.

Azterketetan Jon Montielek Hirugarren Dana lortu zuen eta Javier Lamasek Lehenengo Dana. Azterketa egiteko, euren bikotea Hegoi Esteban izan zen, Kalamuako entrenatzailea, nor hurrengo urterako Laugarren dana prestatzen hasi den.

Kalamuakoak pozik daude Manu Agirreren legatuari jarraipena emateagatik.

## CD Urki-ren rifa 9.432 zenbakiak irabazi du

CD Urkik Gabonetako rifaren sariak banatu ditu. 9.432 zenbakiak irabazi du eta rifaren jabeak 1.000 euro eramango ditu. Bigarren saria 0048 zenbakiarentzat izan da eta horrek 750 euro irabazi ditu; hirugarren saria 0693 zenbakiak eskuratu du eta 250 euro poltsikoratuko ditu. "Zorionak eta urte berri on!", diote Urkikoek.

# San Silbestre 2025. urtea amaitzeko eta Urkora igoera 2026a hasteko

**E.B.** Eibarko Klub Deportiboak antolatuta, abenduaren 31n, 13:00etan, San Silbeste lasterketa egingo da, ...eta kitto!-k Coliseo antzokian antolatzen duen Eibarko Kirol Sarien ekitaldiaren ondoren. Irteera Errebalen egingo da eta antolatzaileek bi aukera ematen dituzte: bata oinez, Errebaletik Untzagara, gero Urkizura eta handik Untzagara; eta bestea korrika, zirkuituari bi buelta emanez (5 km), lehenengo 4,5 km-ak elkarrekin eginez eta azkenengo 500 metroak libre. Hurrengo egunean, 2026ari hasiera emateko, Urkora taldean igotzea proposatzen du Deporrek. Irteera 09:00etan egingo dute Depor paretik eta 10:30ean talde-argazkia egin nahi dute Urko puntan.





## Hiru Errege Magoen kabalgata urtarrilaren 5ean

**S.H.** Urtero bezala, urtarrilaren 5ean ailegatuko dira Hiru Errege Magoak Eibarrera. Herriko kaleetan zehar kalejiran irten aurretik, 17:00etan Ipurua kiroldegian hasiko den dantza erakustaldiaz gozatuko dute. Ikuskizunean Eibarko Nele Dantza Eskolak, Ballet Eibarres-ek, Kaxak, Koak eta Ipurua Gimnasia Erritmikoko taldeek hartuko dute parte. Behin dantzak amaituta, 19:00etan irtengo da kabalgata, Untzagatik, Eibarko Udal Musika Bandaren musikarekin lagunduta. Herriko kaleetan zehar ibili eta gero, Untzagan amaituko da kabalgata eta, jarraian, Meltxor, Gaspar eta Baltasar erregeek haurrei harrera egingo diete, udaletxeko patioan.



## Maite Arriagaren marrazki erakusketa Topalekun

**S.H.** Maite Arriagaren marrazkiak ikusteko aukera egongo da Topalekun, urtarrilaren 1etik 10era. Erakusketa jarraian zehazten dugun ordutegian zabalduko dute: 19:00etatik 21:00etara urtarrilaren 1ean, 7an, 8an eta 9an; eta 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara urtarrilaren 2an, 3an, 4an eta 5ean. Urtarrilaren 6an, berriz, itxita egongo da.



## Indianokua-Ariatzari buruzko hitzaldia Ipuruan

**S.H.** *Indianokua: cambios urbanos del siglo XVIII al XXI* izeneko hitzaldia emango du Javier Martin Lapeyrak urtarrilaren 3an, zapatua, 18:00etan Ipuruako Merkatu Plazan. Ordubete inguruko hitzaldia izango da, proiekzioekin lagunduta. Hizlariaren berbetan, "Indianokua-Ariatza inguruaren eboluzio urbanistikoari buruz arituko naiz eta, besteak beste, gaur egun desagertuta dauden Zumaran jauregia, Aldatsa etxea, Ibarbea presa eta Arrabalgo zubia aztertuko ditut".



## Klub Deportiboko Argazki Taldekoen erakusketa zabalik

**S.H.** Urtarrilaren 11ra arte ikusi daiteke Eibarko Klub Deportiboko Argazki Taldearen erakusketa, Portalean. Parte hartzera animatu diren klubeko argazkilariak hauek dira: Carlos Romero, Daniela Agudelo, Einer Rodriguez, Enrique Lorenzo, Estrella Tardio, Fernando Retolaza, Fernando Solana, Iraia Agirre, Jorge Rodriguez, Jose Valderrey, Jose Vila, Jose Luis Irigoien, Joseba Barrutia, Manu Sanchez, Mikel Urionaguena, Oskar Baglietto, Pedro Arriola, Silvia Tardio, Txema Artetxe, Virginia Arakistain eta Bakarne Elejalde. Erakusketa martitzenetik domekara egongo da zabalik,18:30etik 20:30era.

# OSASUN GIDA

## DENTISTAK

Kolegiatu zkia.: 20001123
**Amaia Esnaola**
ODONTOLOGIA
Fermin Calbeton 19 - 3 ezk. Eibar
943 20 72 17 | 660 42 28 08
amaia@esnaolaodontologia.com

**arat.**
HORTZ KLINIKA CLÍNICA DENTAL
**ZURE IRRIBARRE ONENA**

Toribio Etxebarria Kalea, 4
20600 Eibar
943 201 851
www.aratklinika.com
@arat_klinika

**EIBAR** HORTZ KLINIKA CLÍNICA DENTAL
**Maitane G. Iñiguez**
Odontologian Lizentziatua
R.P.S. 72/19
San Agustín Kalea, 4 (Eibar)
943 537 076 · 688 884 808
info@eibarclinicadental.com
www.eibarclinicadental.com


**BISTA·EDER**
Hortz Klinika · Clínica Dental
T: 943 70 00 82
Bista Eder n.º 19, bajo
20600 EIBAR (Gipuzkoa)

**GASTESI**
Hortz-Klinika
Errebal, 9 - 1. C 943 70 00 90 / 688 68 96 02
Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia

**IRAZABAL**
clínica dental
Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK
Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk.
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

**MIGUEL SEMINARIO ZURIARRAIN** ODONTOLOGOA
Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplanteak
Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

**Odontologia Biologikoa**
**Miren Albistegi Sojo**
Errebal, 14 - 1. B 678 48 57 52
malbistegi@gmail.com

RPS 74/23
**Unzaga Plaza**
Hortz Klinika - Clínica Dental
M. Orozco Ventura doktorea
Unzaga plaza 5, 4º I, Eibar
Tel.: 943 70 23 85

CLINICA DENTAL Y MEDICINA ESTETICA RS
**RS Hortz Klinika**
Jose Usen Rodriguez Montero DOKTOREA
LARRIALDIAK
ERE LANTZEN DITUGU
603 48 90 18 / San Juan, 7

## FISIOTERAPEUTAK

**ANE MENDIA**
970 Kolegiatu zkia.
- INDIBATERAPIA
- KIROL LESIOAK
- Punción seca TRATAMENDUAK
- K-Stretch + HIPOPRESIBOAK
FISIOTERAPIA ZENTRUA
Arragueta, 20
Tlf: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

masajeak eta tratamenduak
**FISIOTERAPIA IPURUA**
EDURNE ETXEBERRIA
1089 kolegiatu zkia.
I. Ojanguren, 2 678 746 617

Julian Etxeberria, 7 688717529
**muina**
FISIOTERAPIA ZENTROA
Zoru Pelbikoa · Fisioterapia orokorra · Talde saioak
Irune Alberdi Sarobe

## GINEKOLOGIA

Dra. Laura Martinez
Dr. Alejandro Recas
**GINECOLOGÍA EIBAR**
- Ginekologia
- Obstetrizia
- Ekografia 3D / 4D
Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com
dra.martinezgallardo@gmail.com
www.ginecologiaeibar.com

# OSASUN GIDA

## MEDIKUNTZA ESTETIKOA

abontza
clínica estética

MEDIKUNTZA ESTETIKOA
- Dermatologia estetikoa
- Aurpegia gaztetzea
- Barizeak

KIRURGIA ESTETIKOA
- Blefaroplastia eta otoplastia
- Liposukzioak
- Kirurgia intimoa

Egiguren, 6 - Behea 943 20 60 44
www.clinica-abontza.com

ANE VESGA
CLÍNICA MEDICINA ESTÉTICA

Mediku Estetikoa
Kirurgia Orokorra
eta Digestio-Aparatukoa

Arragüeta 2bis B, Entreplanta A
623 003 251 info@draanevesga.com
WWW.DRAANEVESGA.COM

RS Medikuntza Estetikoa
Maria Rosmina Soliz Salvatierra DOKTOREA
CLINICA DENTAL Y MEDICINA ESTETICA RS
943 90 30 36 / San Juan, 7

## OKULISTAK

Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

- Kataraten eta presbiziaren kirurgian espezialistak.

R.P.S. 234/13

Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

## PODOLOGOAK

BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746

PODOLOGOA
Erdiko klinika
Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

PODOLOGOA
Maider Lopez Etxeberria
Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnoa. 943 82 04 88
65 Kolegiatu zbkia.

## PSIKOLOGOAK

GONZALEZ DE MENDIBIL
PSIKOLOGIA I PSIKOTERAPIA
Haur, nerabe eta helduenganako arreta psikologikoa
www.gonzalezdemendibilpsicologia.com
T.Etxeberria 5, 1-C | 623 45 31 95

Psikologia klinika eta Psikoterapia zentroa
Oscar Mondragon Lili
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ
Urkizu, 13 - behea
Telf. 943206823 / 686859023

PSIKOTERAPIA ZENTRUA
HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO PSIKOTERAPIA
943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B,1° 3 atea
www.arratepsicoterapia.com

## TERAPIA NATURALAK

DEVI OM
YOGA ETA AYURVEDA ZENTROA
- Yoga klaseak
- Ayurveda masajeak eta terapiak
- Nutrizio, Osasun eta Ongizate kontsultak
- Terapia naturalak

641 512 059
TXALTZA ZELAI 20, BEHEA EZK (EIBAR)

# ZINEA COLISEO



**" Anaconda"**
*KOMEDIA. BELDURRA*

2025 /AEB /99'
Zuzendaria: Tom Gormican
Aktoreak: Paul Rudd, Jack Black, Steve Zahn , Thandiwe Newton
**Animaliak.**

**1 ARETOA**
- 3an: 17:00
- 4an: 17:00

**ANTZOKIA**
- 3an: 19:45, 22:30
- 4an: 20:00
- 5ean: 19:30




**" Frontera "**
*DRAMA. THRILLER*

2025 / Espainia /101'
Zuzendaria: Judith Colell
Aktoreak: Miki Esparbé, Maria Rodríguez Soto, Asier Etxeandia
**40ko hamarkada. Espainiako gerraostea.**

**1ARETOA**
- 3an: 19:45
- 4an: 20:00
- 5ean: 19:30




**"Keeper"**
*THRILLER.BELDURRA*

2025 /AEB/ 99'
Zuzendaria: Osgood Perkins
Aktoreak: Tatiana Maslany, Rossif Sutherland, Kett Turton, Erin Boyes
**Naturaz gaindikoa.**

**2ARETOA**
- 3an 17:00, 19:45, 22:30
- 4an: 17:00, 20:00
- 5ean: 19:30




**"Hanna y las Navidades olvidadas"**
*ANIMAZIOA. ABENTURAK*

2025 /Espainia/88'
Zuzendaria: Elena Ruiz
**Familia. Gabonak.**

**ANTZOKIA**
- 3an: 17:00
- 4an: 17:00

FUNEUSKADI
Grupo Asistea

FUNERARIA MUGICA
Funeuskadi




24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

**Eibar:**
Otaola, 27

**Elgoibar:**
Xixilion, s/n. SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

**Eibarko bulegoa:**
Bidebarrieta, 20

**Ermuako bulegoa:**
Marqués de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

## Ana Garcia Garcia-Anton

**2. URTEURRENA**
2023/12/31



**Beti egongo zara gure bihotzetan. Maite zaitugu**

- ETXEKOAK-

943 20 67 76
aldizkaria@etakitto.eus

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak **JULE**! 4 urte bete dittuzu! Musu haundi bat famelixa guztiaren partez!!



Zorionak **MARA!** Abenduaren 24an 7 urte bete zenduazen eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Sararen partez. Maite zaittugu.



Zorionak **BITTOR**! Abenduaren 28xan 10 urte bete dozuz eta. Oso ondo ospatu ingurukuekin batera eta patxo pila bat famelixaren partez.



Zorionak **ANE**! Gaur 27 urte betetzen dozuz eta. Egun onena opa deutsugu! Besarkada haundi bat Izartxokoen partez!



Zorionak **YANNICK**! Urtarrilaren 3an 3 urte egingo dozuz! Zorionak maittia! Besarkada haundi bat zure famelixaren partez!



Zorionak **NAIKE** eta **TIO ALBERTO!** Egun politxa pasa genduan, famelixa guztiaren partetik besarkada estu bat bixondako.



Zorionak **LAIA** eta **MAREN!**, Hilaren 24an bi urtetxo egin zenduezen-eta. Asko maite zaittuztegu. Zuen famelixaren eta, batez be, Maulen partez.

# Iragarki laburrak

943 20 67 76
aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

**1. ETXEBIZITZA**
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa

**2. MOTORRA**
2.1. Salgai

**3. LOKALAK**
3.1. Salgai
3.2. Errentan

**4. LANA**
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila

**5. IRAKASKUNTZA**
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak

**6. DENETARIK**
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.2. Errentan

- Gela bat alokairuan hartuko nuke. 631058768. Oscar.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Etxean interna bezala edota astebururtan, baita ospitaletan ere. 642852854
- Emakume gaztea eskaintzen da umeak eta nagusiak orduka zaintzeko. Baita maskotak ere. 688894523. Linda
- Entrenamendu pertsonal fisikoak eta futbolekoak egiteko pertsona eskaintzen da. Natalia Wilches. 688894523
- Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako.Ziurtagiriarekin eta erreferentziekin. 667060292.
- Emakumea eskaitzen da orduka edo interna moduan zaintza lanak egiteko, eta baita garbiketa lanak egiteko ere. 631584186.
- Emakumea eskaitzen da orduka edo jardunaldi osoan umeak edo nagusiak zaintzeko, eta baita garbiketa lanak egiteko ere. 614087544.
- Gizona eskaintzen da sukaldari laguntzaile bezala lan egiteko, eta baita eraikuntzan lan egiteko ere. 643317266.
- Gizona eskaintzen da pintore moduan lan egiteko. 20 urteko esperientziarekin.Eraikutzan peoi moduan aritzeko ere. 634155697. Javi.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 602051567.
- Neska euskalduna eskaintzen da arratsaldetan astelehenetik ostiralera umeak zaintzeko. 658168092.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. 613287661.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna, externa edo orduka. 632768653.

### 4.2. Langile bila

- Emakumea behar da Eibarko etxe batean interna moduan lan egiteko. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 685531040.
- Elgoibarko enpresa batek biltegian eta banaketan lan egiteko pertsona bat behar du. Gidabaimena ezinbestekoa da. Bidali curriculuma: hornikuntza@gmail.com

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.2. Eskaintzak

- Pintura klaseak ume edota helduentzat. Umeak; 4 urtetik aurrera, helduak; edozein adinetakoak. Informazio gehiago www.maitearriaga.com. 668 51 68 93
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

## 6. DENETARIK

### 6.1. Salgai

- Logela osoa salgai: ohea (1,35), armairua, xifonierra eta mesanotxea. 600 66 72 65 (Nerea)

FINANTZAKETAREKIN LAGUNDUKO DIZUGU

# Bost urte eman zenituen karrera ikasten.

Eman bost 5 min minutu gutxienez lokala aukeratzen.

**Errekatxu Berri** da zure negozioaren giltza; zatoz. **Lokalak** eta **garajeak** salgai, estreinatzeko prest.

Informa zaitez
**loiola.com**
**900 102 220**

Loiola
Espacios para vivir


ONGI ETORRI
JAN ETA EDAN
ESNATU ZURE ZENTZUMENAK
Sukaldaritza esperientzia ahaztezina
WWW.ONGIETORRIBAR.COM